



Unibertsitate Politika eta koordinazioko zuzendariaren 2019ko azaroaren 4ko EBAZPENA, 2019/2020ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten eta, haien baldintza fisiko edo psikikoengatik, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntzen deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko uztailaren 2ko aginduaren bidez diru-laguntzak deitu ziren, 2019/2020ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten eta, haien baldintza fisiko edo psikikoengatik, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzera bideratuak.

Aipatutako aginduak II. eranskinaren 10. artikuluan xedatutakoaren babesean eraturako selekzio-batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertu eta diru-laguntzen onuradunak selekzionatu ditu.

Horregatik guztiarengatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten unibertsitate- edo goi irakaskuntzetako ikasleei, i. eranskinean zerrendatzen direnei, eman eta ordaintzea mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraioaren diru-laguntza, HIRUROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HAMABI ZENTIMO guztizko zenbatekoan (61.269,12 €).

Bigarrena.- Zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraiorako diru-laguntza ukatzea II. eranskinean aipatzen den pertsonen, ez baititu deialdian ezarritako baldintzak betetzen.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinarazteko agindua ematea, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraio-gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntza 2019/2020ko ikasturterako eskatu dutenei.

Laugarrena.- Interesatuak gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 4a

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA

Fdo/ Izpta.: Miren Artaraz Miñón



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1V0B-FZ0A bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1V0B-FZ0A en la sede electrónica <http://euskadi.eus/lokalizadon>

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 82 99 - Fax 945 01 84 22 - E-mail: uni.ikasketak@euskadi.eus



I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN ZERRENDA

IDENTIFIKATZAILEA	ZENBATEKOA
45993095H	8.398,50 €
72747754L	9.152,00 €
44562563V	2.424,40 €
79850834E	524 €
45892330Q	10.000,00 €
72846652V	8.000 €
16613703K	4.290,00 €
78954389N	9.900,22 €
16089678M	8.580,00 €



II. ERANSKINA

UKATUTAKO DIRU LAGUNTZEN ZERRENDA

IDENTIFIKATZAILEA
44342744D
78999725S
45949532V
X8342694L